

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

**Euskal ekonomia
hazi egin zen 2004an**

**Behin-behinekotasuna
puntu erdi gehitu zen 2004an**

**Sinaturiko kontratuen %92,5,
behin-behinekoak**

Etorkinen %45,9, pilaturik bizi da

**145.217 pertsonak independizatu
nahi baina ezin EAEn**

Hego Euskal Herriko (*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

ADIERAZLEA	NEURRIA	AZKEN DATA	2004-IV	2003-IV	2004-IV
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA					
JARDUERA TASA	%	04 IV	70,1	69,8	70,1
" 15-EUROPAKO BATASUNEAN	%	2003	70	69	70
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	KOPURUA	04 IV	1.162.900	1.140.000	1.162.900
SOLDATAKO BIZTANLERIA	KOPURUA	04 IV	935.500	915.900	935.500
ALDI BATERAKOTASUN TASA	%	04 IV	29,8	29,3	29,8
" 15-EUROPAKO BATASUNEAN	%	03 II	12,8	13	12,8
BIZTANLERI LANGABETUA	KOPURUA	04 IV	80.900	102.000	80.900
LANGABEZI TASA	%	04 IV	5,7	8,3	5,7
" 15-EUROPAKO BATASUNEAN	%	04 ABE.	8	8	8
GAZTEEN LANGABEZI TASA	%	04 IV	17,3	21,4	17,3
" 15-EUROPAKO BATASUNEAN	%	04 ABE.	16	15,4	16
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA	%	04 IV	7,6	11,2	7,6
" 15-EUROPAKO BATASUNEAN	%	04 ABE.	8,9	8,9	8,9
SINATURIKO KONTRATUAK	KOPURUA	05 URT.	80.822	948.984	1.003.619
MUGAGABEKO KONTRATUAK	KOPURUA	05 URT.	7.544	73.879	74.836
ENPLEGU ERREGULAZIOA					
ONARTURIKO FITXAK	KOPURUA	04 URT.-URRI.	448	429	-
ERAGINDAKO LANGILEAK	KOPURUA	04 URT.-URRI.	9.465	15.134	-
LAN ISTRIPUAK					
BAJA HARTZEN DUTEN LANGILEAK	KOPURUA	04 URT.-ABE.	62.115	67.657	62.115
HILDAKOAK ETA LARRIAK	KOPURUA	04 URT.-ABE.	731	902	731
ESKAINNTZA ETA ESKARIA					
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn	% ALD.	04 URT.-ABE.	1,9	2,3	1,9
INDUSTRI JARDUERA NAFARROAn	% ALD.	04 URT.-ABU.	5,2	6,5	-
PRODUKZIO AHALMEN ERABILERA EAEn	%	04 III	77,8	78,8	-
BPGa EAEn	% ALD.	04 IV	2,9	2,6	2,9
BEGa NAFARROAn	% ALD.	04 III	4	3	-
BPGa ESPAINIAR ESTATUAN	% ALD.	04 III	2,5	2,3	-
BPGa 15-EUROPAKO BATASUNEAN	% ALD.	04 III	2	0,7	-
PREZIOAK					
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN	%	05 URT.	3,1	2,3	3,1
" 15-EUROPAKO BATASUNEAN	%	04 ABE.	2,2	1,8	2,2
05/02/21ean eguneraturiko informazioarekin. Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra, Eurostat, OCDE, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, INSL, INEM, INE.					



Aurkibidea

SARRERA3

EGOERA SOZIAL ETA EKONOMIKOARI BURUZKO IRUZKINAK4

1. Datuek ekonomiaren osasuna egiaztatzen dute4
2. Behin-behinekotasuna gorantz 2004an4
3. Aldi baterako kontratuen portzentajea handitu egin da 2004an6
4. Enplegu erregulazioa gero eta handiagoa7
5. Lan istripuak: kopuru guztiz kezkarriak7
6. Prezioak 15-EBn baino gehiago eta aurreikuspenak baino gehiago garestitu dira7

HIL HONETAKO PUNTAKO GAIK9

1. Pobreziak bilakaera kezkarria erakusten du hazkunde-garaian...9
2. Etorkinen etxebizitza-egoera deitoragarria9

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
BEG	Balio Erantsi Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jardueraren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produkzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
INE	Instituto Nacional de Estadística

EGOERAREN

A Z T E R K E T A

Sarrera

Egoeraren Azterketaren 99. zenbaki honetan ikusiko dugunez, 2004ko ekitaldiari buruz daukagun informazioak ekonomiak hazten segitzen duela erakusten du. Horrez gain, Hego Euskal Herrian, enpleguak 2004ko laugarren hiruhilekoan izandako egoeraren eta urtean zehar izandako bilakaeraren gaineko azterketa zehatza egingo dugu. Horretatik atera daitekeenez, Europar Batasuna osatzen zuten 15 estatu kideen aldean gure herriak agertzen duen defizit nabarmenena behin-behinekotasun altuan datza.

* 05/02/21ean eguneraturiko informazioarekin.

Egoera sozial eta ekonomikoari buruzko iruzkinak

1. Datuek ekonomiaren osasun ona egiaztatzen dute


Euskal Autonomi Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinak (BPG) %2,9ko urte arteko hazkundea izan du 2004ko laugarren hiruhilekoan, ekitaldia %3ko ekonomi hazkundearekin itxiz. Goranzko joera baieztatzen da beraz, 2003ko hazkundea % 2,5eko izan baitzen. **Nafarroako** BPGa %3,4 hazi da hirugarren hiruhilekoan, aztertzen ditugunetatik hazkunderik handiena erakutsiz berriro ere. Datu hauek, bere inguruarekin alderatuz, Hego Euskal Herriko (HEH) ekonomiaren egoera eta bilakaera onak izaten ari direla islatzen dute. Zehazki, **espainiar Estatuko** BPGa %2,5 hazi da 2004ko hirugarren hiruhilekoan, eta %2,7 laugarrenean, Eurostaten arabera; joera hau ez da HEHkoa bezain baikorra beraz.

Hedapena aurretiko Europako Batasuneko 15 estatu kideen (**15-EB**) BPGak %1,8ko urte arteko igoera izan du 2004ko laugarren hiruhilekoan; aurreko hiruhilekoko bano 3 hamarren baxuagoa izan arren, 2003arekiko goranzko joera garbia azaltzen du zifra honek. Badaude Alemania bezalako estatuak, 15-EBeko batezbestekoa baino hazkunde baxuagoa izaten ari direnak (%0,8, %1,4 eta %1,3 2004ko lehen hiru hiruhilekotan); Frantzia bezalako beste batzuk aldiz, batez-bestekoa baino gehiago hazten ari dira (%2, %3,1, %2 eta %2,2 2004ko hiruhileko bakoitzean).

EAEko Produkzio Industrialaren Indizeak %1,9ko igoera izan du 2004ko urtarriletik abendura bitarte, hau da, 2003koa (%2,3) baino hazkunde txikixeagoa. Nafarroako Jarduera Industrialaren Indizea %5,2 hazi da urtarriletik abuztura, hori ere 2003ko hazkundearen (%6,5) azpitik. **EAEko Produkzio Ahalmenaren Erabilera** %77,8koa izan da bigarren hiruhilekoan, 2003koa (%78,8) baino urrixegoa, halaber.

Industriaren egoerari buruzko datu horiek hazkunde 2003koa baino txikiagoa izan dela adierazten dute, eta, beraz, ez datoz bat BPGari buruzkoekin (industria sektoreko BPGa ere 2003ko igoeraren gainetik hazten ari da). Dena dela, agerian geratzen da euskal ekonomiaren osasun ona.

BPGaren URTE ARTEKO HAZKUNDEAK (%). NAFARROA, EAE, ESPAINIAR ESTATUA ETA 15-EB, 2003-2004



Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra, INE, Eurostat

2. Behin-behinekotasuna gorantz 2004an

2004ko laugarren hiruhilekoko enpleguari buruzko datuak kalean daude jadanik; hortaz, iazko ekitaldi osoaren gaineko balantzea egiteko aukera dugu.

Lanean ari diren edo lanpostu bat modu aktiboki bilatzen duten 16 eta 65 urte bitarteko pertsonen portzentajea %70,1ekoa izan da Hego Euskal Herrian 2004ko laugarren hiruhilekoan; horrek 3 hamarreneko igoera adierazten du 2003ko laugarren hiruhilekoaren aldean. **Jarduera-tasa** hori 20,7 puntu handiagoa da gizonezkoen kasuan (%80,4) emakumezkoen kasuan (%59,7) baino, nahiz eta 2004an diferentziak murriztu egin diren.

15-EBn, jarduera-tasa %70ekoa izan zen 2003an (horixe da eskura daukagun azken informazioa). Gizonezkoen tasa %78,5ekoa izan zen, emakumezkoena (%61,5) baino 17 puntu altuagoa, alegia. Beraz, HEHko jarduera-tasa orokorra 15-EBkoaren antzekoa da, gizonen kasuan altuagoa, eta emakumeenean baxuagoa.

Lanean dabilen biztanleria 1.162.900 lagunek osatzen dute: biztanle horietatik %58,2 gizonenak dira, eta %41,8, emakumezkoak, 2004an alde hori urrituz joan bada ere. Zehazki, 2004an sortu diren 22.900 lanpostuak emakumeen kolektiboak bereganatu ditu, lanpostua



duzen gizonen kopurura 1.900ean murriztu baita. Enpleguak %2ko hazkundera izan du 2004an, ekonomiaren hazkundera baino txikiagoa, alegia (%3ko hazkundera EAEn, eta %3,4ko aurreikuspena dago Nafarroarako).

Lanean dabilen pertsona gehien hartzen dituen sektorea zerbitzua izan da: 707.700 lagun, hain zuzen ere, hots, lanpostu guztien %60,8. Horren ostean, industria sektorea dator, 318.500 lanposturekin lanean dabilen biztanleriaren %27,4 hartzen duena. Hurrengo tokian, eraikuntza sektorea dago, 111.300 pertsona eta guztizkoaren %9,6arekin. Eta, lanpostu kopuruari dagokionez, azkena lehen sektorea da, 25.400 lanpostu eta lanean dabilen biztanleriaren %2,2 urria baitagozkio. 2004an, zerbitzuen sektoreak 21.400 lanpostuko gehikuntza izan du; eraikuntzak 7.900 lanpostukoa, industriak 1.500ekoa, eta lehen sektoreak, berriz, 7.800 lanpostu galdu ditu. Lehen sektoreko lanpostuen galera azken garaietan errepikatu egiten den konstante bihurtu da (2003an, 7.500 enplegu galdu ziren lehen sektorean); egitate horrek mehatxua dakarkio Euskal Herrian, tradizioz, garrantzi handia izan duen sektore horri. Nekazaritza arloko politikek produkzio handiei mesede eta txikiei kalte egiteak eragina du enplegu kantitatean, janari arloko subiranotasunari eta produktuen kalitateari ondorio kaltegarriak ekartzeaz gain. Beraz, benetako neurriak hartu behar dira arlo horretan, lehen sektorearen pisu urriak murrizten segitzea nahi ez bada.

LANEAN DABILEN BIZTANLERIA SEKTOREZ SEKTORE. HEH 2004ko IV. HIRUHILEKOA ETA EKITALDIKO BILAKAERA

SEKTOREA	Landun bizt.	%	2004 Bilak.
ZERBITZUAK	707.700	60,9	21,400
INDUSTRIA	318.500	27,4	1.500
ERAIKUNTZA	111.300	9,6	7.900
LEHN S.	25.400	2,2	-7.800
GUZTIRA	1.162.900	100	23.000

Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra

Soldatapeko langileak 935.500 izan dira 2004aren amaieran; horren arabera, lanean dabilen 100 lagunetik 80,4 soldatapekoak dira (ehuneko hori 2003ko laugarren hiruhilekokoaren berdintsua da); gizonetan %78ekoa da portzentajea, eta emakumeetan %83,8koa. Solda-

tapeko pertsonen kopuruak 19.600 laguneko gehikuntza izan du 2004an zehar, hots: ekitaldian zehar sortu den enpleguaren %85etik gora soldatapekoak izan da. Lanean dabilen biztanleriaren kasuan ez bezala, soldatapeko gizonen kopurua 400 lagunetan hazi da 2004ko ekitaldian zehar. Azpimarratu behar da soldatapeko pertsonen kopuruak 2.600 laguneko murrizpena izan duela 2004ko azken hiruhilekoan zehar.

HEHn, soldatapeko 100 pertsonatik 29,8k aldi baterako kontratua izan dute edo ez dute inolako kontraturik izan; horrek puntu erdiko igotza adierazten du kolektibo horretan, aurreko ekitaldiko datuen aldean (nahiz eta ekitaldiko azken hiruhilekoan 7 hamarren jaitsi den). Aldi baterako kontratua duten pertsonen kopuruak 10.800 laguneko gehikuntza izan du termino absolutuan ekitaldian zehar; hortaz, sortu den soldatapeko enpleguaren %55,1 aldi baterakoa izan da.

Datuak sexuen arabera bereizirik, emakumeen kasuan, 2004an sortu den soldatapeko enpleguaren %67,3 aldi baterakoa izan da; gizonen dagokionez, aldi baterako soldatapekoen kolektiboak 2.400 laguneko jaitsiera izan du. Emakumeen behin-behinekotasun tasa (%36,8) gizonena (%24,4) baino 12,4 puntu altuagoa izan da; aldea, gainera, handiago egin da urtealdian zehar, gizonena puntu erdi urritu delarik, emakumeena puntu eta erdi hazi baita. Gazteei dagokionez, soldatapeko biztanleriaren behin-behinekotasuna (guztietan handiena, berez) hazi egin da 2004an (25 urtetik beherakoen kolektiboarena %74koa izan da, eta 25 eta 35 urte bitartekoena, %42,2koa).

Oso interesgarria HEHko behin-behinekotasun tasak 15-EBkoekin alderatzea, konparazioak ere agerian uzten duelako gure arazoaren tamaina. 2003ko bigarren hiruhilekoan (daukagun azken informazioa aldi horri baitagokio), behin-behinekotasun tasa orokorra %12,8koa izan zen 15-EBn: gizonena %11,8koa eta emakumeena %13,9koa; beraz, behin-behinekotasunari dagokionez, generoen arteko ezberdintasunak askoz txikiagoak dira 15-EBn (2,1 puntu) Hego Euskal Herrian baino. HEHko behin-behinekotasun tasa orokorra 15-EBkoa baino 2,3 bider handiagoa da, gizonena 2,1 bider handiagoa, eta emakumeena 2,6 bider handiagoa.

**BEHIN-BEHINEKOTASUN TASAK
HEH (2004ko IV. HIRUHILEKOA)
ETA 15-EB (2003ko II. HIRUHILEKOA)**

	HEH	15-EB	DIF. PTU.	DIF. ALDIAK
OROKORRA	29,8	12,8	17	2,3
GIZONENA	24,4	11,8	12,6	2,1
EMAKUMEENA	36,8	13,9	22,9	2,6

Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra, Eurostat

Langabezia dagoen biztanleria 80.900 laguneko izan da 2004ko laugarren hiruhilekoan; datu horren arabera, 21.100 laguneko jaitsiera izan du 2004an. Langabeziaren murrizpenaren ia %86 emakumeen kolektiboari egokitu zaio, eta, horren ondorioz, gizonezko biztanle langabeak (langabezia dauzen pertsona guztien %50,7) emakume langabeak (langabetuen %49,3) baino gehiago izan dira lehenengo aldiz; bestela esateko: langabezia dauzen emakumeak (39.900) lanik gabe dauzen gizonek (41.100) baino gutxiago dira, lehenbizikoz.

2004ko ekitaldiaren amaieran, **langabezia-tasa** %6,5koa izan da, emakumezkoena (%7,6) gizonezkoena (%5,7) baino 1,9 puntu altuagoa izanik. Gazteen kolektiboak kaltetue-na izaten jarraitzen du aldagai honetan ere: 25 urtetik beherakoen kolektiboaren langabezia-tasa %17,3koa eta 25 urtetik 35era bitarteko kolektiboarena %8,7koa da eta.

15-EBko langabezia-tasa %8koa izan da 2004ko abenduan, Hego Euskal Herrikoa baino puntu eta erdi altuagoa, alegia. Emakumeen langabezia-tasa %8,9koa izan da 15-EBn (HEHkoa baino 1,3 puntu altuagoa) eta gizonena %7,3koa (1,6 puntu altuagoa). Gazteen langabezia-tasa %16koa izan da duela gutxira arte 15 estatu kide zituen Europar Batasunean.

Enpleguari dagokionez, 2004ko laugarren hiruhilekoan Hego Euskal Herriak izan duen egoerari buruz, honako hau esan dezakegu, **laburpen** gisa:

- HEHko *jarduera-tasa* 15-EBkoaren antzekoa da (baxuagoa da emakumeen kasuan eta altuagoa gizonenean).
- *Langabezia-tasa* orokorra eta gizonena zein emakumeena baxuagoak dira HEHn 15-EBn baino.
- *Behin-behinekotasun tasa* askoz altuagoa da HEHn 15-EBn baino; diferentzia are handiagoa da emakumeen kasuan.

3. Aldi baterako kontratuen portzentajea handitu egin da 2004an

2004an, 1.003.619 **lan-kontratu sinatu dira** Hego Euskal Herrian. Kontratu horietatik 384.621 (kontratu guztien %38,3) ekoizpen-beharren arabera behin-behineko kontratuak izan dira; obra edo zerbitzuko kontratuak 350.033 (%34,9); aldi baterako bitarteko kontratuak 164.882 (%16,4); kontratu mugagabe arruntak 21.485 (%2,1), enplegua sustatzeko kontratu mugagabeak 18.393 (%1,8) eta praktikaldiko kontratuak 8.733 (%0,9).

Ondorengo taulak kontratu mota guztiei buruzko eta sexuen arabera informazioa ematen du. Ikus daitekeenez, emakumeei egiten zaien kontratu-mota ohikoena ere ekoizpen-beharren arabera behin-behineko kontratua da (emakumeek sinatutako kontratu guztien %39,4, hain zuzen ere), eta gizonen kolektiboaren ohikoena obra edo zerbitzuko kontratua (gizonek sinatutako kontratuen %42,8).

SINATUTAKO KONTRATUAK MOTAREN ARABERA. HEGO EUSKAL HERRIA, 2004

KONTRATU MOTA	KOP.	%	%/G.	%/E.
EKOIZPEN-BEHAR. BEHIN-BEHIN.	384.621	38,3	37,3	39,4
OBRA EDO ZERBITZUKOA	350.033	34,9	42,8	27,0
BITARTEKOA	164.882	16,4	8,1	24,7
PRAKTIKALDIKOA	8.733	0,9	1,0	0,7
JUBILAZIO PARTZIALA	4.383	0,4	0,8	0,1
TXANDAKOA	4.110	0,4	0,6	0,2
PRESTAKUNTZARAKOA	3.796	0,4	0,5	0,3
LANERATZEKO ALDI BATERAKOA	2.424	0,2	0,2	0,2
ELBARRIENTZAKO ALDI BATERA.	1.098	0,1	0,1	0,1
ERRETIRO BEREZ. ORDEZTE-KONT.	148	0	0,0	0,0
BESTE BATZUK	4.555	0,5	0,4	0,5
ALDI BATER. KONT., GUZTIRA	928.783	92,5	91,9	93,1
MUGAGABE BIHURTUTAKOA	34.519	3,4	4,1	2,8
MUGAGABE ARRUNTA	21.485	2,1	2,8	1,5
ENPLEGUA SUST. KONT. MUGAG.	18.393	1,8	1,1	2,6
ELBARRIENTZAKOA	439	0	0,1	0,0
MUGAGABEAK, GUZTIRA	74.836	7,5	8,1	6,9
GUZTIRA	1.003.619	100	100	100

Iturria: INEM

2004an sinatu diren kontratuetatik 928.783, hau da, **guztizkoaren %92,5, aldi baterakoak** izan dira, 2003an baino 3 hamarren gehiago. Aldi baterako kontratuen portzentajea handia-



goa da emakumeen kasuan (%93,1) gizonenean (%91,9) baino. Aldi baterako kontratuen ehunekoak, gainera, Kopuruok asaldagarriak dira, kontratazioan egiten den iruzurra frogatu besterik ez baitute egiten, iruzur horren kontrako inolako neurririk hartzen ez delarik.

INEMen informazioak 2004an Hego Euskal Herrian sinatutako hasierako kontratuen **lanaldi motak** aztertzeko aukera ematen digu (hasierako kontratuen %99,1i buruzko informazioa daukagu). Sinatutako kontratuen %27 lanaldi partzialean aritzeko izan dira. Lanaldi partzialeko kontratuen ehunekoa handiagoa da emakumeen kasuan (%39) gizonenean baino (%14,7); izan ere, lanaldi partzialeko kontratuen %73,1 emakumeek sinatu dituzte, eta %26,9a bakarrik gizonak (emakumeek sinatu dituzten hasierako kontratu guztiak %50,7 dira, gizonak sinatutakoen %49,3aren aldean).

**HASIERAKO KONTRATUAK (%99,1)
LANALDI MOTAREN ARABERA.
HEGO EUSKAL HERRIA, 2004**

GUZTIRA			GIZONAK			EMAKUMEAK		
Partziala	Osoa	Aldiz. Finko	Partziala	Osoa	Aldiz. Finko	Partziala	Osoa	Aldiz. Finko
27,0	72,7	0,3	14,7	85,0	0,3	39,0	60,6	0,4

Iturria: INEM

4. Enplegu erregulazioa gero eta handiagoa

2004ko urtarriletik urrira bitartean, enplegu-erregulaziorako 448 fitxa baimendu dira, hots, **2003ko aldi berean baino 19 gehiago**. Fitxa horiek 9.465 langilerengan izan dute eragina, aurreko urtealdian baino 5.669 lagun gutxiagorengan, alegia.

5. Lan istripuak: kopuru guztiz kezkarriak

2004an, baja eragin duten 62.115 lan-istripu gertatu dira HEHn, hau da, 2003an baino 5.542 gutxiago. Istripu horietatik 731 larriak izan dira edo hildakoren bat eragin dute; horrelakoak 2003an baino 171 gutxiago izan dira. Lan istripuen kopurua murriztu bada ere, **kopuruak onartezinak** dira oraindik ere, nahiz eta, dirudienez, behar besteko garrantzia emateko eta istripuok saihesteko neurriak hartzeko modukoak ez izan. Behin-behinekotasun eta azpikon-

tratazio-tasa altuek, lanaldi luzeek eta somaroko lanak (destajua) zerikusi handia dute lan-istripuekin.

Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea onartu zenetik 9 urte iragan badira ere, **ez da lortu lan istripuak murrizterik** (1996an, legea indarrean hasi baino lehen, 50.718 istripu jazo ziren Hego Euskal Herrian, 2004an baino 11.397 gutxiago).

15-EBn, 2002an, lanpostua zuten 100.000 pertsonako 3.536 lan-istripu gertatu zirelarik, Hego Euskal Herriko istripuen kopurua 6.263,1ekoa izan zen (kopuru horri soldatapekoa ez den biztanleriak nozitutako lan-istripuak gehitu behar zaizkio, gainera). **Hego Euskal Herrian, beraz, lan-istripuen kopurua 15-EBkoen bikoitza dira.**

6. Prezioak 15-EBn baino gehiago eta aurreikuspenak baino gehiago garestitu dira

2004ko ekitaldia %3,2ko inflazioaz itxi da, Espainiako gobernuak **aurreikusitakoa baino 1,2 puntu inflazio altuagoaz**, alegia.


Aurreikuspenak ez betetze hori behin eta berriz errepikatzen ari da azken urteetan, baina, antza denez, hori ez da behar besteko arrazoa Espainiako gobernuak gai horren gaineko gogoeta egiteko eta, hain laburra den %2ko aurreikuspen hori aldatzeko (2005erako ere mantendu egiten da).

Politika horren ondorioz, **kolektibo zaurgarrienen diru-sarrerak**, hala nola pentsiodunenak, edo efektu anitzeko errenta-adierazle publikoa jasotzen dutenenak (IPREM) eta adierazle horretan oinarrituriko errentak jasotzen dituztenenak, **murriztu egin dira.**

ELAk erabat arbuiatzen du aurreikusitako KPIa hitzarmen kolektiboen negoziatorako erreferentziatzat erabiltzeko irizpidea, eta **aurreko ekitaldiko benetako KPIa erabiltzea** proposatzen du, bestela langileek ere nozitzen baitute aurreikuspen okerraren ondoriozko kaltea.

Espainiako estatuko prezioak **Europako batez bestekoaren oso gainetik** hazten ari dira, Europako gehikuntza, aurreko urtealdietakoen antzera, %2,2koa izan delarik.

KPIaren URTEARTEKO HAZKUNDEAK (%)
ESPAAINIAKO ESTATUA, 15-EB, 2004



Iturriak: INE, Eurostat





1

Pobreziak bilakaera kezkagarria erakusten du hazkunde-garaian

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak Pobreziari eta Gizarte Desorekei buruzko 2004ko Inkesta argitaratu du. Inkesta horretan eta aurrekoekiko konparazioan (batez ere 2000ko urtealdikoarekiko konparazioan) oinarriturik, ondorioztatze garrantzitsuak egin daitezke.

Hona hemen lehenengo ondorioztatzea: nahiz eta azken urteetako hazkunde ekonomikoa nabaria izan eta, horrekin loturik, langabezia murriztu egin den arren, pobrezia-tasen urripena eta "ongizaterik eza" deritzona bere horretan geratu dira.

Iraupeneko Pobrezia (hau da, pobrezia larria esan ahal zaion hori) honela definitzen da: "oinarrizko premiak (batez ere, janari, etxebizitza, jantzi eta oinetakoekin loturiko ohiko gastuak eragiten dituztenak) estaltzeko behar besteko diru-sarrerarik ez izatea". Iraupeneko Pobreziak EAEko etheen %4,9 eta biztanleriaren %3,5 jotzen zituen 2004an (73.718 pertsona).

Ongizaterik eza "oinarrizko premien estaldura hutsetik harago, espero daitezkeen gutxieneko ongizate eta erosotasun-mailei eusteko beharrezko gastuei aurre egiteko behar besteko sarrerarik ez izateari" esaten zaio, eta EAEko etheen %23,6 eta biztanleriaren %19,8 jotzen ditu (412.963 lagun).

2000tik 2004ra bitarteko epealdian, pobrezia-aren eta ongizaterik ezaren tasak oso gutxi urritu dira. Era horretan, iraupeneko pobrezia 2000n biztanleriaren %3,6koa izatetik 2004an %3,5ekoa izatera igaro da. Ongizaterik eza, berriz, puntu bat murriztu da (biztanleriaren %20,8tik %19,8ra). Murriztapen ñimiño hori EAEko enpleguak 78.500 lanpostuko gehikuntza izan duen aldi berean gertatu da, lanean dabiltzan pertsonak 834.000 izatetik 912.500 izatera pasatu dira eta.

Gainera, badago pobrezia-aren murriztapen horren interpretazio are zehatzagoa egitera behartzen gaituen beste datu bat: baliabiderik ezagatik bizimodu independentea egiterik ez dutenen kopurua gero eta handiagoa da. 2004ko Inkestaren arabera, kolektibo hori 145.200 lagunek osatzen dute.

Behar besteko baliabiderik ez izatea (bai soldata-mailekin bai etxebizitzaren prezioarekin loturik dagoena) gorantz doan errealitatea da eta pobrezia-egoerak estaltzen dituela pentsarazten digu. Izan ere, gazteak independizatzen ez diren neurrian ez dira pobretzat edo ongizaterik gabekotzat hartzen.

Hortaz, pobrezia-tasak ez dira hazi, independizatzen ez diren gazteen kopurua eta gazte horien portzentajea asko handitu direlako. 2004an, 44 urte baino gutxiagoko 145.217 pertsonak egin nahi zuten bizimodu independentea, baina ez zuten horretarako baliabide nahikorik. 2000n 132.609 lagunek osatzen zuten kolektibo hori; beraz, %9,5 hazi da lau urtean. Adin-tarte horretan independizatzen ez zirenak %25 izatetik %32,9 izatera igaro dira lau urte horietan. Bi datuok argi erakusten dute etxebizitza lortzeko gero eta oztopo latzagoa, eta, halaber, pobrezia-aren beste aurpegi baten adierazletzat (ezkutuko pobrezia-aren adierazletzat) har genitzake.

EAEko POBREZIARI BURUZKO DATUAK. 2000-2004

	2000	2004
IRAUPENeko POBREZIA %	%3,6	%3,5
ONGIZATEAREN EZAREN %	%20,8	%19,8
BALIABIDERIK EZAGATIK INDEPENDIZATZEN EZ DIRENAK	132.609	145.217

Iturria: Pobreziari eta Gizarte Desorekei buruzko Inkesta

2

Etorkinen etxebizitza-egoera deitoragarria

Nafarroako Unibertsitate Publikoko ALTER Ikerketa Taldeak prestatu duen "Europako

Hil honetako puntako gaiak

Batasunetik kanpoko etorkinen oraingo egoera eta bilakaera Nafarroan" izenburuko azterlanaren arabera, EB-tik kanpoko pertsonak gainerako biztanleek baino baldintza txarragoetan lortzen dute etxebizitza. Atal horretan, honako bi datu hauek azpimarra ditzakegu:

- 2003an, etorkinen %45,9 pilaturik bizi ziren (3 lagun edo gehiago logela bakoitzean, edo bi lagun edo gehiago, senitarteko izan gabe). Ehuneko horrek 1,8 puntuko igoera izan du 2000tik hona. Aipatutako azterlanaren arabera, pilaketa ez da heltzean bakarrik noztzen duten arazoa: leku hobea lortu arteko elkarbizitza-modu iragankorra izatetik etorkinen bizimoduaren egiturazko ezaugarri bihurtzen ari da eta. Egoera hori prezio eskuragarriko etxebizitza lortzeko oztopoen ondorioa da.
- 2003an, etorkinen %29,7 berrakuratutako logeletan bizi ziren, eta portzentajea 18 puntu hazi da 3 urtean. Etorkinen %80 alokairuan bizi dira, etxebizitza jabeak %9 direlarik. Gainerakoak lanarekin loturiko ostatueta edo senitartekoen mantenupean bizi dira. Etorkinen %30 berrakuratutako logeletan bizitzea (hau da, alokatutako etxebizitza baten titular direnek berralokatzen dituzten geletan) kolektibo horrek etxebizitza lortzeko duen arazoaren isla da. Azterlanaren arabera, etxebizitza lortzeko oztopoak ekonomikoak izan badaitezke ere, gizartearen sektore horrentzako etxebizitza ezaren ondorio ere badira.